

# Galduta

Angel Gallo Fernandez



*enskara  
txanpan*

# Galduta

Angel Gallo Fernandez

Julene Azpeitia 26. ipuin lehiaketa

2013

2. saria

2013ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Angel Gallo Fernandez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Aitak tabako bila joan behar nuela esan zidan, eta anaia nirekin eraman behar nuela ere esan zidan. Nik 3,15 euro hartu nituen: euro bateko txanpon bi, berrogeita hamar zentimoko beste bi, hamar zentimotako bat eta bost zentimoko beste bat. Dirua erabili behar dudanean, justua eramatea gustuko dut.

-Gero eman ezazu buelta bat hortik, amak eta biok bakarrik egoteko denbora behar dugu eta... -eta hori ez zitzaidan gustatu, niri gauza zehatzak gustatzen baitzaizkit, eta ez "buelta bat" edota "denbora" bezalako esamolde neurrigabeak.

Amak ez zidan ezer esan, bere gelatik irten ere ez baitzen egin (beraien gelatik esan beharko nukeen arren, amak etxean denbora gehiago ematen duenez eta aitak berriz ezer gutxi, amarena dela pentsatzea nahiago dut). Nik nahiago dut amak esatea gauzak, lasai esaten baititu, baina aitak esaten dituenean ere kasu egiten dut, beraz, hartan ere horrela egin nuen.

Dena den, apurtxo batean zain geratu nintzen, beti bezala ama agur esatera irten zedin zain. Hori zen beti egin ohi zuena, eta ez nekien zergatik ez zuen halakorik egin behar hartan, berak ondo baino hobeto baitaki nik ohiko gauzak ditudala laket.

Baina ez zen etorri agur esatera.

Hori ez zitzaidan batere gustatu. Aitak

-Alde egizu hemendik behingoz!

esan zidanean baino gehiago mindu ninduen. Amak badakielako ni ohitura zalea naizela.

Edonola ere, eskaileretan behera egin nuen. Nire anaia eskutik ebatuta nuen, oso txikia baita eta ezin baitu zuzen ondo ibili. Amak beti esan dit lagundu behar diodala laguntzarik behar ez duen unera arte, baina nik ez dakit hori noiz izango den une zehaztugabea baita, eta ez zait asko gustatzen. Baina egin egiten dut berdin-berdin.

Eskailerak binaka jaitsi nituen hala ere. Usadio hori dut, eta usadio hori bai mantendu nezakeen behintzat. Eskailera zenbakia bikoitia delako egiten dut hori. Egunero eskailera kopurua mantendu egiten dela jakiteak lasaitzen nau.

Kalera irten ginenean korrika zihoan jende pila aurkitu genuen. Korrika ez, arin ibiltzen baizik; korrika doan jendeak korrika egiteko arropa eramaten du normalean. Iluntzean zegoen eta jende hori guztia etxera zihoan. Iluntzean etxera joan behar duzu, gauak kalean harrapa ez zaitzan. Baina aitak kalera joateko esana zidan. Ez nuen ulertzen zergatik, baina aitak esaten badu jaramon egin behar nion. Hori ere irakatsia zidan amak. Ez zidan azaldu zergatik, bakarrik

-Zenbait gauza horrela dira eta ez dute azalpenik

esan zidan. Eta amari bai egin behar nion jaramon, horregatik baita nire ama eta ez beste norbaitena.

Kalean nengoela eskumatara egin nuen. Hegoaldera egitea ere bazen hura. Tabakoa saltzen zuen denda 134 metroa zegoen gure etxeko ataritik, Hegoaldera bidean, eta horregatik egin nuen harantz. 134 metroak honela banatzen ziren:

- o 12 metro gure portaletik lehen errepidera, espaloitik
- o 18 metro errepidea eta espaloiak gurutzatzeko
- o 32 metroko eraikina
- o 18 metro bigarengo errepidea bere espaloiekin gurutzatzeko
- o 30 metroko eraikina
- o 16 metro hirugarren errepidea eta bere espaloiak gurutzatzeko
- o 8 metro dendara heltzeko

Anaia oraindik nirekin zetorren, eskutik helduta.

Inguruko jendea oso altua zen eta oso azkar zihoan, eta zenbaitetan nire anaiari tira egiten nion, inork zapaldu ez zezan. Ezin nuen ulertu zergatik jendeak ez duen begiratzen non jarri behar dituen oinak, oso garrantzitsua baita, bestela zuloren bat edo beste norbaiten hanka edo lurrean etzanda diru eske dagoen norbait edota txakur baten gorotza zapaldu dezakezu eta.

Esan dudan moduan, tabakoa saltzen duten dendara heltzeko errepidea hirutan zeharkatu beharra dago. Semafororik ez da, eta autoek gelditu arte itxaron beharra dago bidea gurutzatzeko, jende askok hala egiten ez duen arren. Logika jarraitzen ez duen jendea da hori. Bidean 6 zakarrontzi eta 8 zuhaitz daude, eta jendeak maiz bota beharrekoak zuhaitzen sustraietara botatzen ditu eta ez zakarrontzira. Horrek ere ez du logikarik. Amak esaten dit jende horrek logika galdu zuela txikitan, eta ez zaiela iraindu behar, nahikoa baitute beraien galerarekin. Nik nire anaia zuhaitzetatik eta beraz zaborretik urrunduta mantentzen ahalegindu nintzen.

Gero tabakoa saltzen duten dendara iritsi ginen.

Tabakoaz gain beste gauza asko ere saltzen dituzte. Baina gehienak ezagutzen ez ditudanez, nik "tabakoa saltzen duten denda" deitzen dut.

-Tabako pakete bat, mesedez -esan nion saltzaileari. Berak irribarre egin zidan, baina ez dakit zergatik. Dena den irribarre egitea ona da, beraz ez ninduen arduratu.

–Zein markatakoa? –galdetu zidan, nahiz eta nire aita ezagutzen zuela uste dudan eta jadanik bazekiela zein markatakoa erretzen zuen. Ez nuen ulertzen zergatik galdetzen zidan orduan hura. Hari jaramonik ez egiten ahalegindu nintzen, bestela urduri jarriko nintzakeen eta urduri jartzean ezin ditut gauzak kontrolatu.

–3,15 euro balio duena.

Orduan berak irribarre egin zuen berriz eta kaxa txuri, gorri eta beltz bat luzatu zidan. Plastikoko baten barruan zetorren.

–Ez eman zure anaiari gero! –esan zidan, eta barre egin zuen. Baina nik ez nuen ulertu zergatik pentsa zezakeen nire anaiari tabakoa eman behar nionik. Tabakoa txarra baita, eta umeentzako are txarragoa.

Nire aitak zergatik erretzen duen ere galdetu izan diot amari noizbait, baina berak ez dit ezer erantzun. Aitak ere logika apur bat galdu duela uste dut. Baina ez nago ziur.

Txanpon guztiak eman nizkion (euro bateko biak, 50 zentimotako biak, hamar zentimotakoa eta 5 zentimotakoa), eta dendatik irten nintzen. Etxerako bidea hartu nuen, hau da, Iparraldera zeramana.

Lehenengo bidegurutzera heldu nintzenean autoak noiz gelditu zain geratu nintzen. Anaia eskutik tinko helduta nuen oraindik. Ibiltzea kostatzen zitzaion nire anaiari, baina hori normala zen, nekatuta baitzegoen; oso txikia zen eta erraz nekatzen zen. Ez ni bezala, ni askoz helduagoa bainintzen.

Baina, gu gelditu arren, eta autoak zetozen arren, gure inguruko jendea ez zen gelditu, eta bidea gurutzatzen hasi zen pertsona asko. Logika gabeko pertsona asko.

Eta bista arazoak ere izango zituzten. Izan ere, ez gintuzten ikusi ez ni ez nire anaia. Gure gainetik pasa ziren batzuek, eta gure alboetik beste batzuek, eta denek bultzatzen egin gintuzten. Eta haietariko batek bortizki bultzatu ninduen, eta nire anaia askatu behar izan nuen. Oso indartsua naiz ni, amak beti esan ohi dit; baina bultzada ez nuen espero eta anaia askatu behar izan nuen. Gero, bistaz galdu nuen.

Lurrera erori nintzen eta bueltaka hasi nintzen. Mundua bueltaka hasi zitzaidan. Urduri jarri nintzen. Eta oso urduri jartzearen beldur izan nintzen.

Posible izan nuenean zutik jarri nintzen. Prarak zikin nituen. Amari hori ez zitzaion gustatuko. Aitak ez zion arretarik eskainiko.

Anaiaren bila begiratu nuen. Ez nuen ikusi. Urduri sentitu nintzen berriz. Baina ez *urduriegia*.

Gero bere izena oihukatzea pentsatu nuen. Baina ez nuen egin, amak kalean oihu ez dela egin behar esana baitzidan. Nahiz eta aitak bai egiten zuen oihu kalean; batez ere nire amari egiten zion oihu. Baina esan dudana bezala, ziurrenik aitari logika apur bat ere falta zaio.

Kalearen amaieran ikusi nuen nire anaia. Ni nengoen lekutik urrun. Aitak eskatu zidana ez nengoen egiten. Eraikin haren beste ertzean zegoen. Kalea gurutzatzean zegoen, baina okerreko bidean. Beragana korrika egin nuen.

Bera egona zen lekura heldu nintzenean ordea, jadanik bidea gurutzatua zuen.

Auto bat gelditu artean itxaron nuen orduan, eta gero nik ere bidea gurutzatu nuen. Korrika egin nuen hori ere (gurutzatzearena, itxarotearena ez, itxaron beti lasai egin behar baita).

Beste aldera heldu nintzenean nire anaia berriz ikusi nuen. Urrun zen baina ez horrenbeste. Beragana korrika egin nuen beste behin. Kale hartan ez zen horrenbeste pertsona, eta errazagoa zen.

Eta azkenik, beragana heldu nintzen. Eskutik ebatzea lortu nuenean urduritasuna desagertu zitzaidan. Eta horrekin oso urduri jartzeko aukera ere bai.

Nire anaiari so egin nion, eta hark begirada itzuli zidan, eta irribarre ere egin zidan, baina ez nuen jakin zergatik.

Lasai nengoenez, eta anaia nirekin nuenez, etxera joatea erabaki nuen.

Baina ez nekien zein zen etxera joateko bidea.

Eraikinak ez ziren karratuak geunden lekuan, eta hori ez nuen gustuko. Korrika egin nuenean ez nuen igarotako kaleetan erreparatu. Nire anaia bakarrik begiratzen nuen, edo hura begiratzen ahalegintzen nintzen behintzat, eta ez nuen bidean erreparatu. Ondo egin nuen, amak beti esan baitit lehendabizi anaia babestu behar dudala eta gero beste guztiagatik arduratu.

Baina orain etxera itzuli behar genuen, eta nik bidea ez nekiela ohartu nintzen. Aitak tabakoa erosi eta gero "buelta bat" emateko agindu zigun; eta hori zenbat denbora izan zitekeen ez nekien arren (aitak denbora adierazi nahi baitzuen esamolde harekin, eta ez espazioa), ziur nengoen jadanik itzultzeko ordua zatekeela. Baina ez nekien nondik egin behar nuen bide hura.

Eraikin karratuen gabeziak ez zidan uzten pentsatzen. Nahaspila hark nahasten ninduen. Gainera ilun zen, eta eguzkirik ez zegoen beraz, eta orduan ezin nuen jakin non zegoen Iparra eta non Hegoa. Gure inguruan jende gutxi zebilen, eta zebiltzan apurrak oso azkar zihoazen eta ez nintzen ezer galdetzera ausartu. Auto asko ziren baita han. Kaleei so egin nien behin eta berriz, eta haien izenak irakurri baita, baina haien izenek eta haien itxurek ez zidaten ezer adierazi. Ez nekien non nengoen ezta nora joan behar nuen etxera itzultzeko.

Eta berriz urduri jarri nintzen. Inguruak arrastorik ez eskaintzeak urduri jartzen ninduen. Logikarik gabeko leku hura ez nuen gustuko. Eta beldur apur bat ere ematen zidan, nahiz eta beldurra emateko aparteko arrazoirik ez zuen lekuak. Gaua zela, besterik ez.

Orduan nire anaia tiraka hasi zen. Norazko batean joan nahi zuela iruditu zitzaidan, baina ez nekien zergatik joan nahi zuen harantz, beraz agian bakarrik txiza egin nahi zuela pentsatu nuen.

Baina ez, ez zuen halakorik nahi, bestela han bertan egingo baitzuen. Baina tiraka jarraitu zuen.

Behin batean entzun nuen aurkitua izateko modurik onena zauden lekuan gelditzea dela. Agian hori egin behar genuen. Baina bestalde ez nekien bilatuak izaten ari ginen ala ez, beraz agian ez zen ideia ona bertan gelditzea. Eta anaiak jadanik noranzko bat aukeratua zuenez, hari jarraitzea erabaki nuen.

Anaiak aukeratua zuen bideak behera egiten zuen, eta gero eskumara, eta espaloiarene eta errepidearen artean autoak ziren, auto handiak eta auto txikiak eta motorrak eta kamioiak eta auto zaharrak eta kamioi berriak eta auto zatarrak eta motor politak. Niri motorrak gustatzen zaizkit autoak baino gehiago, azken hauen gauza berdinak egiten dituztelako baina txikiagoak direlako, eta horrela edozein tokitan aparka ditzakezu.

Kale hura amaitzen zenean eskumara egiten zuen, baina eskailera batzuek ere baziren, beherago egiten zutenak. Hauek hartu genituen, autorik ezin baitzen handik pasa, eta amak beti aholkatzen dit autoetatik urrun mantentzea. Aitak auto handi eta azkar eta zaratatsu bat duen arren.

Eskaileretan azala ilunago zuten bi pertsona aurkitu genituen. Ilun egon arren ikus zitekeen azala ilunagoa zutela. Baina ez ilunegia, tabernatan CDak saltzen dituen tipo horrek duen kolorekoa.

-Salam alecom -esan ziguten tipo haiek. Eta nik, esan zutena ulertzen ez nuenez,

-Kaixo -erantzun nien.

Gero ez ziguten besterik esan.

Eskailera haiek ez zitzaizkidan gehiegi gustatu, eskailera kopurua bakoitia baitzen.

Eskailera haiek erreka baten ertzerantz zeramaten. Erreka hura ezaguna egiten zitzaidan; amarekin sarri paseoan joaten naizenekoa zen. Anaiak ez du gustuko paseoan joatea, eta gehienetan aulki batean eserita joaten da. Baina aitari ez omen zaio hori gustatzen, nahiz eta arrazoia inoiz ez digun esan, eta zutik joateko esan ohi dio, gizonak ibili behar dutela eta ez eserita egon. Eta orduan nire anaia negarrez hasten da eta aitak aurpegiko bat ematen dio eta negar gehiago egiten du eta ama aita lasaitzen ahalegintzen da eta orduan etxera itzultzen gara eta gero ama eta aita beraien gelara joaten dira eta atea ixten dute eta aita lasaitu arte ez dira ateratzen.

Zorionez, gutxitan etortzen da aita gurekin paseoan.

Baina oraingoan ez zen paseoa egin behar genuena, etxerako bidea hartzea baizik.

Arazoa zen erreka berdina izan arren (eta hori argi nuen ur-emari berdina baitzuen eta uraren kolorea oso antzerakoa baitzen, eta antzeman zitekeen sakontasuna ere parekoa zela, eta jendea hemen ere ontzi txiki luzetan arraunean baitzebilien) ez nintzela sekula han egona, puntu jakin hartan. Beraz ez nekien zer albotara egin behar nuen. Alde bietara begiratu nuen baina pistarik ez nuen aurkitu.

Gero oso ilun zegoela ohartu nintzen, eta hotza ere nabaritu nuen, eta urduritu nintzen, benetan urduritu, aitzak munstroen filmak jartzen dituen bezainbeste urduritu nintzen. Jarraitu genuen bidea gogoratzen ahalegindu nintzen, zer albotara egin behar nuen jakiteko, baina urduriegi nengoen pentsatzeko, eta ez nuen ezer pentsatzea lortu.

Orduan anaiak tira egin zidan berriz, alde baterantz tira. Eta besterik ez nuenez, harantz joatea erabaki nuen. Ibiltzeak apur bat lasaitu ninduen.

Anaia nekatuta zegoen, hala ere. Gero eta gehiago kostatzen zitzaion ibiltzea. Hotz ere egon behar zuen, dardarka sumatzen bainuen, eta dardarka egoteko beste arrazoirik ez baitzuen.

Bide hura jarraitu genuen 17 minutu eta 38 segundoz, eta niri oso luze egin zitzaidan tarte hura, behintzat 35 minutu igaro zirenean sentipena bainuen. Baina ez, bakarrik 17 minutu eta 38 segundo igaro ziren. Bidean topatutako erloju batzuei esker jakin nuen denbora hori igaro zela.

17 minutu eta 38 segundo igaro zirenean zubi batera heldu ginen. Zubi hartatik autoak igaro zitezkeen, baina bakarrik autobusak zebiltzan. Jendea ere bazebilien, eta jende hura gaztea zen (baina ez ni bezain gaztea), eta oihuka eta barrezka zebiltzan denak, eta beraz ez nien norabiderik eskatu nahi izan. Oso zaratatsuak iruditu zitzaizkidan, eta hori ez zitzaidan gustatu, amak beti baitio ez dela iskanbilarik sortu behar, batez ere gaeuz. Eta gaua zen orduan.

Nahiz eta aitzak bai sortzen zituen iskanbilak, eta hori amari ez zitzaion txarto iruditzen. Inoiz ez dut hori ondo ulertu. Baina une hura ez zen horretan pentsatzekoa.

Zubi hartan zer egin erabaki behar genuen. 3 aukera genituen:

1. Aurrera jarraitu.
2. Zubia gurutzatu eta bestaldera joan.
3. Zubia ez gurutzatu baina gure eskumara zen kale hura jarraitu.

1 aukera ez zen oso erakargarria. Bidea jarraitzea suposatzen zuen, eta ordura arte ibilitakoan nik ez nuen ezer ezagunik topatu. Bazirudien ez gindoazela norabide onean.

2 eta 3 aukerak oso antzerakoak ziruditen. 2ak plaza batera zeraman, eta han argi asko zen. 3ak, ostera, errepide hari jarraitzen zion.

Anaia tiraka hasia zen 2 aukerarantz.

Niri ondo iruditu zitzaidan, argia dagoen lekuetara joatea ona baita. Beraz, bidea gurutzatu genuen.

Baina plazara heldu ginenean argiaz gain kale asko ere topatu genuen. Plazara 4 kale heltzen ziren, edota bertan hasten ziren, ezin baintuen kaleetako atarien zenbakiak ikusi, eta ez dakit zenbaki baxuak edo altuak ote ziren.

Zein har genezakeen pentsatzen hasi nintzen. Zein eramango gintuen etxera. Beste behingoz hasi nintzen erabaki hori hartzen. Jadanik bosgarren aldia zen hori egiten nuela.



Orduan anaiak nire eskua askatu zuen eta lurrean eseri zen. Besoekin bere gorputza besarkatu zuen, eta burua beso haietan ezkututzen ahalegindu zen.

Gero dardarka hasi zen.

Ez nekien zergatik eseri zen. Ni ez nengoen nekatuta; ez dakit zergatik nekatzen zen bera horren erraz. Txikiagoa zen arren, hura jasan behar zuen. Lehen beharra etxera heltzea zen, beraz esertzeak ez zuen zentzurik.

Bera altxatzen ahalegindu nintzen, baina ez ninduen utzi.

Geldi gelditu nintzen. Zeregin ezean.

- o Biderik egokiena aukeratu behar nuen, eta horretarako aztarna bat behar nuen, kale egokia zein zen adieraziko zidan aztarna.
- o Aztarna topatzeko kaleen sarreretara joan behar nuen, baina ez nintzen gerturatu, horrek anaia bakarrik uztea suposatuko bailuke (eta amak esana zidan anaia ez nuela sekula bakarrik utzi behar).
- o Anaia nirekin eraman behar nuen, baina nekatuta zegoen eta ezin nuen altxatu, eta horren arrazoia ulertzen edo ezagutzen ez nuen arren, ezin izango nuen altxatu, eta amak txikitan esan zidan ez nuela nire anaia arrastaka eraman behar, bera baino indartsuagoa izan arren.
- o Gainera, edozein bide hartuta ere, hark etxera eramateko zituen aukerak oso urriak ziren, horrenbeste aukera hartu eta gero estatistikoki bat behintzat okerrekoa izango baitzen, eta orduan etxetik urruntzen egongo baikinen.

Geldi gelditu nintzen beste behin. Eta urduritu nintzen. Hotza ere sentitu nuen. Kanean geunden, eta berandu zen, eta hori ezin zen ona izan, ez baitzen ohikoa, eta ohikoak ez diren gertaerak ez baitira onak, eta nik ez ditut gustuko.

Orduan, gertu-gertu, kanpai batek jo zuen. Oso ozen, eta oso gertu.

Anaia esnatu zen orduan, salto batean. Harridura aurpegia jarri zuen, edo beldur aurpegia agian. Gero, kanpaiak isildu zirenean, niri begira geratu zen, eta bere begiak nekatuta zeudela iruditu zitzaidan, zain gorri txiki asko baitzituzten eta busti samar baitziren.

Une hura erabili nuen nire anaia besotik hartzeko eta zutik jartzeko berriz. Kale bat aukeratu nuen, eta hara zuzendu nintzen. Ez nuen aztarna bila ibiltzeko denborarik, bestela agian anaia berriz ere lo geratuko zelako.

Baina ez zitzaidan gustatu. Kale-aukeraketa hark ez zuen logikarik jarraitu, eta nik logikarik gabeko erabakiak ez ditut atsegin. Logikarik gabeko erabakiak eta ohiturak jarraitzen ez dituztenak ez zaizkit gustatzen.

Kalea hutsik zegoen, eta lurrean ura zen, euririk egin ez zuen arren. Kale amaieran kamioi bat zebilen, argi laranjaduna, eta argiak bueltak ematen zituen.

Beste kale batera joan ginen, baina zabor usaina zen han, eta zaborra zen lurrean, eta hura ezin zuen ona izan. Gainera, gure etxe inguruan ez zen zaborrik egoten, beraz handik ezin gintezkeen gure etxera joan. Hark logika zuen, eta gustatu zitzaidan. Argi ikusi nuen.

Ilun zegoen beste kale batean jende mordoa topatu genuen, eta zarata baita, eta anaiari belarriak estali nizkion musika altuegi baitzegoen. Kale horretatik joatea erabaki nuen dena den, horrenbeste jende egonik ezagunen bat topatzea errazagoa izan zitekeelako.

Pareta baten kontra neska eta mutil bat zeuden. Mutilak ahoa eta mihia neskaren ahoaren barruan sartzen ziharduen, eta niri hori txarto zegoela iruditu zitzaidan, amak beti esan baitit gauzak ez direla ahora sartu behar, ezta atzamarrak ere. Agian neskek eta mutilek egiten duten gauza horietariko bat zen, baina ama eta aita inoiz ez ditut ikusi halakorik egiten, eta beraz berriz pentsatu nuen ezetz, txarto zegoela hura.

Gehiago ez begiratzen ahalegindu nintzen.

–Gero eta gazteago hasten dira irteten! –esan zuen norbaitek, eta ez dut uste nigatik esan zezakeenik; akaso nire anaiagatik esango zuen. Amak beti esan dit oso nagusia naizela, eta aitak kontrakoa esan arren ("ume moko" da berak darabilen adierazpena) nik hura sinestea gustuko dut.

Ez nuen ulertzen zergatik zegoen han horrenbeste jende. Berandu zen, eta amak beti esaten zidan ordu horietan kalean ez zela ibili behar, ezer onik ez baitzegoen kaleetan; baina ez zen posible jende hura guztia galduta egotea nire moduan. Agian hura gustuko zuten?

Baina hori ez zen posible. Leku hura oso leku txarra zen, horren txarra jendeak pareten kontra egin behar zuela txiza, komunik ez baitzegoen. Eta hori oso txarra da, umeek bakarrik egiten duten zerbait, eta haiei baimena ematen zaie oraindik umeak direlako eta ez baitituzte gu helduok ditugun beharrak. Nire anaiak, esaterako, horretarako baimena du, bestela pixoihalean egiten du eta hori askoz txarragoa omen da.

Gero pentsatu nuen agian aita kale horietatik ibiliko zela etxera berandu heltzen zenean. Izan ere, oso usain txarra ekartzen zuen halakoetan, eta txarto hitz egiten zuen, baina askoz gehiago ez dakit horri buruz, nik jadanik ordu asko baitaramatzat lo ordurako, eta nire ohera hurbiltzen denean entzuten eta usaintzen ditudanak baino ez dakizkit nik. Gero amak oihu egiten dio eta nire gelatik irten behar dela esaten dio, eta aitak oihu gehiago eta ozenagoak botatzen dizkio amari, baina ordurako gelatik kanpo daude eta ez dakit zer esaten duten.

Gauza da aita handik egoteko aukera bazegoen, agian ni ikusi eta etxera eramango ninduela. Eta nire anaia ere eraman beharko zuen, amari hori agindu bainion. Eta bai, aukera hori bazegoen, aita normalean ez baizen gurean geratzen lo egitera, eta agian kalean zen jadanik; bakarrik ahotik kiratsa darion horietan egiten zuen, eta halakoetan sofan geratu ohi zen lo.

Beraz kale haietan barna ibiltzea erabaki nuen, azkarrago topatzeko.

Baina kaleak denak ziren antzerakoak, eta oso estuak, eta jendez beteak, eta ez ziren karratuak, eta oso usain txarrekoak denak. Portaletako zenbakiak ikusten ahalegintzen nintzen, zenbakiak beti baitira fidagarriak eta ulerterrazak eta logikoak eta horregatik oso gustuko ditudalako; baina horrenbeste buru eta ke eta

oihu eta musika eta mihi artean ezinezkoa zitzaidan, eta beti leku berdinerara itzultzen nintzela sentitzen nuen, eta horrek urduri jartzen ninduen.

Eta urduritzea ez zen ona. Ez behintzat ni urduritzea.

Biziki urduritzen naizenean lurrera erortzen naiz, eta gero bits hori irteten zait ahotik, eta gero beti norbaitek eskua ahoan sartzen dit eta nire mihiarekin jolasten du eta hori ez zait gustatzen, hori ez zait batere gustatzen.

Eta gero beti erietxe batean esnatzen naiz, eta ez dut oroitzen nola heldu naizen hara. Eta dena normaltasunera itzultzen da. Denbora batez behintzat.

Lehen ez omen zitzaidan halakorik gertatzen, nire anaiari gertatzen ez zaion moduan. Baina gero aitak zerbait egin omen zidan eta hori gertatzen hasi zitzaidan. Dena den, ez dakit zer den aitak egin zidana, amak sekula ez baitit horri buruz hitz egiten, beti negarrean hasten da eta. Eta nik ere ez dut gogoratzen.

-Begira, atzeratu bat! -oihukatu zuen orduan norbaitek. Niri begira zegoen mutil talde baten erdian zen eta nigana seinalatzen zuen tipo batek esan zuen hura, konkretuki.

-Hi, utzizak bakean, nahikoa du berearekin eta... -esan zion alboko norbaitek.

Nik ez nuen ezer ulertu, etxean aitak "lelotuta geratu da" esaten duenean bezala. Amak gero beti "zure errua da!" oihukatzen dio negar artean, eta jipoi bati buruz aritzen dira, aspaldi gertatu zen jipoi bati buruz, baina nik ez dut ezer ulertzen.

Eta halakoetan amak beti esaten dit oso normala naizela eta lasai egoteko; baina nik ez dut ulertzen zergatik egiten duen negar orduan.

Ziurrenik helduen kontuak izango ziren (oso heldu ziren haienak, ez ni bezain heldu zirenenak, helduagoenak baizik), eta beraz hartan gehiago ez pentsatzea erabaki nuen. Izan ere helduen kontuek ez dute logikarik, eta logikarik gabekoak ulertzea gehiegi kostatzen zait, eta gauzak asko pentsatu arren ulertzen ez baditut urduri jartzen bainaiz. Eta urduritzea ez da ona.

Orduan anaiak besotik tira egin zidan, eta begi nekatuz begiratu ninduen, eta ez zidan ezer esan, nire anaiak ez baitu barbarik egiten, medikuek berba egin dezakeela dioten arren. Halakoetan, ama eta aita berriz ere eztabaidan hasten dira beste jipoi baten inguruan, baina hori ere ez dut ulertzen nik.

Dena den, bazirudien anaiak

-Beldur ematen dit jende horrek -esan nahi zidala, eta beraz handik alden du ginen, nire anaia zaintzea eskatu baitzidan aitak eta nik beraz hala egin behar bainuen.

Baina ez nekien nora joan gintezkeen, kale haietan bueltaka ibiltzea baino ez baitzitzaidan bururatzen aita topatu ahal izateko.

Gero anaiak berriz egin zidan tira besotik, eta berriz begiratu ninduen, eta orduan

-Nekatuta nago -esan nahi zidala iruditu zitzaidan, eta gero-, lo egin nahi dut... Noiz joango gara etxera? -ere esan nahi zuela iruditu zitzaidan, esan ez zuen arren.

Eta ez nion gezurrik esan nahi izan, eta beraz

-Ez dakit -esan nion.

Gero pentsatu nuen bueltaka ibilita ez genuela aita topatzeko aukera gehiagorik, geldi geratzearekin konparatuta behinik behin, eta beraz atari batean esertzea erabaki nuen, txiza ez zuen atari batean.

Nire jertsea anaiari eman nion hotzik pasa ez zezan, eta orduan nik pasa nuen hotza, baina horrek berdin zuen, ni nagusia bainintzen, eta nagusiok egoera latzak jasateko gai izan behar dugulako. Edo hori esaten dute telebistan bederen.

Eta gero zain geratu ginen.

Anaiak lo hartu zuen, baina nik ez nuen halakorik nahi. Agian aita handik igaroko zen eta esnatuta egon behar nuen, bestela agian berak ez ninduen ikusiko eta etxera itzultzeko aukera galduko genuke. Eta hori ez litzateke ona izango.

Beraz zain geratu nintzen.

Denbora luzean egon nintzen zain. Jendea etorri eta joan zen, eta txiza egin zuen, eta edalontziak apurtu, eta lurrera erori, eta borrokatu, eta mihiak ahotan sartu eta arropak elkarri erantzi, eta guk zain jarraitu genuen. Edo nik zain jarraitu nuen eta anaiak lo jarraitu zuen, hobe esanda.

Gero, askoz geroago (eta ezin nintzen oso zehatza izan erlojurik ez bainekusan), auto bat agertu zen, argi urdinak biraka zituen auto bat. Gure aurrean gelditu zen, eta polizia bat jaitsi zen bertatik. Beste bat barrualdean geratu zen.

Gero polizia hori gugana hurbildu zen, eta belaunikatu zen gure aurrean, eta nire izena esan zuen.

-Zu al zara?

-Bai, ni naiz -esan nion. Eta bakarrik polizia zelako hitz egin nion, polizia bai fida baitzaitezke, gaueko ordu txikiak izan arren. Bestela, ezezagunekin hitz egitea ez dut laketa, gehienek ez baitituzte gauzak ordenan esaten eta horrek urduritzen bainau.

Baina oraingoan ezberdina zen. Oraingoan polizia bat zen hizketan ari zitzaidana. Nire izena zekien polizia bat.

-Eta hau zure anaia da, ezta? Oso txikia da kalean egoteko ordu hauetan, ez duzu uste?

-Galdu egin gara -esan nuen eta behera begiratu nuen-. Nire errua izan da.

Polizia hark, orduan, bere kideari begiratu zion. "Puf" esan zuen gero, "hori baino ez zen".

Gero autora sartzeko eskatu ziguten, eta guk poz-pez egin genuen hura. Autoaren barnealdea epel zen. Maindire bana eman ziguten, eta guk gainean jantzi genituen, jertseak baillira.

-Etxera eramango gaituzue? -galdetu nien atzeko eserlekutik. Ezagutzen ez nuen gailu mordoaz betea zen autoa. Gehienak jostailuak ziruditen.

Polizia biek elkarri so egin zioten orduan. Urduritu zirela iruditu zitzaidan.

-Er... Ez, ez goaz etxera... -esan zuen bietariko batek, arinago autotik jaitsi ez zenak- Zuen ama ikustera goaz... -eta izugarri kostatzen zitzaion berba egitea- Baina ez dago etxean...

-Non dago ba? -baina erantzuna ezagutzen nuen, eta urduritzen hasi

-Er... Zera... Erietxean dago...

-Eta... -eta oso urduri nengoen, ikarak eta bitsa itzultzeaz ziren puntura arte urduri- Eta... Eta aita... -jarraitu nuen nola ahala- aita ere erietxean dago?

-Er... Ez, ez, aita ez dago erietxean, aita... -eta beste behingoz elkar begiratu zuten polizia biek, eta batak besteari baiezkoa egin zion buruarekin- Aita gurekin dago, espetxean...

-A. Ados.

Eta momentu hartan lasaitu nintzen, eta ikarak etorriko ez zirela jakin nuen.

Izan ere dena zen ohikoa, beti bezalakoa, eta nik ohiko gauzekin gustura sentitzen naiz.